

**Beharrezkoa den balantzea**

Asmo handikoa da Eusko Jaurlaritzak aurreko legegintzaldian terrorismoaren biktimen memoriarako eta onarpenerako egin duen politikaren balantzea, baina, aldi berean, emaitzei eta filosofiari buruzko begirada kritikoa ere egin behar zaio. Bake eta Bizikidetzeta Plana eta Gogora Institutua, zalantzarik gabe, proposamen garrantzitsuak dira, eta hainbat jarduera eta proiektu gain hartzen dituzte (batzuk amaituta daude eta beste batzuk abian dira). Horrek bat dator Urkullu *lehendakariak* zuen asmoarekin: ETA amaitu ostean memoriaren politika bat egitea. Horixe izan zen aurreko legegintzaldiaren hiru oinarrizko ardatzetako bat.

Fernando Buesa Blanco Fundazioak pozik hartu zuen Bake eta Bizikidetzeta Plana, baina horren filosofiarekiko kritikak bi alderditan oinarritu genituen. Alde batetik, edukien inguruko adostasun politikoaren falta sumatu genuen. Planaren lehen zirriborroak ez zuen jaso "zoru etiko" deitutakoa, aurreko legegintzaldian adostutakoa, eta ondoren gaineratu behar izan zen eranskin gisa. Dena dela, Planaren erdigunea izan beharko litzateke. Zoritxarrez, adostasuna baztertu zen, urteotan terrorismoa politikoki eutsi duen sektorearekiko oreka bilatzen baitzen. Horren truke, saihestu egin zen aurreko legegintzaldian Bake eta Bizikidetzaren ponentzian adostutako lan osoa. Behin eta berriz esan bazen ere Sortuk autokritika egin behar zuela, Planak gaine-gainetik aipatzen du alderdi hori.

Beste alde batetik, eta aurrekoarekin oso lotuta, Planean indarra galdu dute indarkeria terroristan ezker abertzale erradikalak izan dituen erantzukizunek, eta ETA zegoen bitartean sortutako sufrimendu anitzetan oinarritzen da Plana, baina aipatu gabe, biktimen esanahi politikoa bazter batean utziz. Horren ondorioz, guda zibiletik terrorismora arte, eta frankismotik igarota, garaien eta espazioen araberrako biktima ezberdinak batu egiten ziren bakoitzaren berezkotasuna aintzat hartu gabe. Biktima guztiak —ETAren, terrorismoaren aurkakoen eta polizia-gehiegikerien biktimak— onartu eta horien eskubideak lehengoratu behar ditugu, baina bakoitzari esanahia eman behar zaio.



Izan ere, kontuan izan behar dira biktima bihurtzeko egoera bakoitzaren berezitasunak. ETari dagokionez, ezaugarri berezi bat ondokoa da: euskal gizartearen sektore bat alde agertu zela eta justifikatu egin zuela. Ahalegina egiten ari da biktimekiko enpatia, oro har, eta giza eskubideen defentsa sustatzeko programetan, baina, horrez gain, berariaz ekin beharko zaio ETaren terrorismoaren deslegitimazioari, egiteke dugun lana baita, aurreko astean Hernanin gertatutakoak erakutsi digun moduan.

Halaber, esan bezala, garrantzitsua da biktima izatearen kausak argi bereiztea, horrek ematen baitio esanahia azken berrogeita hamar urteotan gure herrian gertatu denari. Aurkakoak, gatazkaren teorian sakontzen du, eta horren aurka gaude guztiz. Edo, gainera, kontraesanak eta politika okerrak sortzen ditu. "Euskadiko kasuan bizitzarako eskubidearen urraketa inguruko udal erretratuak" agiriak, terrorismoaren ondoriozkotzat eta motibazio politikoen ondoriozkotzat jo ezin diren zenbait biktima sartzeko aukera eman dezake. Horrek ulertu ezin den *totum revolutum* bidegabea sortzen du, esaterako, Iñigo Cabacas eta Aitor Zabaletaren kasuan sartzeak.

Horrekin guztiarekin, euskal herritarrak batera biktima bihurtu nahi izan dituzte. Helburua, guztiak identitate bakarrean urtzea da, sufritzen dutenen identitatean, alegia, eta indarkeria terroristak hautsitako komunitatea berrosatuko genuke. Horren xedea ez da hainbeste adierazpen bortitz bakoitzaren arrazoiak ezagutzea, helburuak, askotan politikoak, ezagutzea, baizik eta pairatutako minaren errealitate ezberdinak adieraztea. Hori dela eta, memoria anitz, koral eta subjektiboa nabarmendu da zorrotasunaren eta gertatutakoa ulertzeko asmoaren arabera eraikitako kontaketa guztien gainetik.

Aurreko legegintzaldian, gainera, Terrorismoaren Biktimen Memoriala jarri da abian. Espainiako Gobernuak sustatu zuen Eusko Jaurlaritzaren esku hartzearekin. Fundazioak behin eta berriz adierazi du kezkatuta egon dela sortzeko orduan atzeratu direlako —hiru urte Legea onetsi zenetik—, eta garapena oso geldoa izan delako, arduradun teknikoek borondate ona bazuten ere. Egoera horren aurrean, Gogora Institutuaren egoera dugu. Memoriala ahalik eta azkarren hornitzera animatzen dugu, eta adierazten dugu kezkatuta gaudela erakunde biek (Memoriala eta Gogora), antzeko helburua izanda, ez dutelako elkar ezagutzen eta ez dutelako ezarri ahaleginak koordinatzeko programa bat.



Gure ustez, datorren legegintzaldira begira, oinarrizko lehentasunak "zoru etikoan" oinarritutako adostasuna ezartzea izan behar du, eta horren helburuak, ondokoak: ETA behin betiko desegitea, alde egin zutenean autokritika, helburu politikoak lortzeko indarkeria erabiltzea legez kontrakoa dela onartzea eta zuzenbideko Estatu osatzen dituzten printzipio eta baloreen alde egitea. Aldi berean, lehengoratzeko politikan, biktimen duintasunean eta autokritika egiten duten biktima eragileen gizarteratzean oinarritutako beste espetxe-politika bat egiteak aipatutako helburuak erraztuko ditu.

Biktimen memoria babestearen alde lan egiten dugun elkarte eta fundaziook haizea gure kontra dugula jakin badakigu. Euskal gizartea, hainbat arrazoi direla eta, gertatutakoa gairatu nahi du. Erakundeentzat eroso da herriak esandakoaren arabera jokatzeko, baina ez da arduratsua. Euskal gizartearen berehalako etorkizuna, azken mendean hemen gertatu denaren ezagutza eta kontzientzia zorrotzean oinarritu behar da. Irtenbide errazak akats larriak izan daitezke gerora begira, egun, indarkeriarekin eta horren ondoriozko guztiarekin aspertuta dauden herritarrek irtenbide horien alde egiten badute ere. Euskal gizarteak sendo egin behar du aurrera, ezin du ahaztu, gertatutakoa alde batera utzi, gertatutakoa ezagutu eta onartu behar du eta norberak bere ardurak hartu beharko ditu gain.

Hori guztia dela eta, gure ustez politika konprometituagoak biktimen duintasuna lehengoratzen du, eta esanahia ematen die formula iraingarri, antidemokratiko eta kriminal baten bidez batzuen proiektu politikoa ezarriz beldurtzeko eta gizarte osoa garaitzeko helburua zuen indarkeriaren biktimei.